BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

393

EBAZPENA, 2013ko abenduaren 19koa, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordearena, Glasgoweko Unibertsitaterako ikertzaile bisitarientzat diru-laguntza bat esleitzen duena.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2013ko azaroaren 19ko Aginduaren bidez, Glasgoweko Unibertsitaterako ikertzaile bisitariei diru-laguntza bat emateko deia egin zen.

Eskatzaileen ebaluazioa bukatu ondoren, Aukeratze-batzordeak proposatuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Glasgoweko Unibertsitaterako ikertzaile bisitarientzako diru-laguntza bat esleitzea Irati Agirreazkuenaga Onaindia andreari 2013-2014 ikasturterako.

Ebazpen honek ez du administrazio-bidea agortuko, eta, beraren aurka, gorako errekurtsoa jarri ahal izango zaio Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko abenduaren 19a.

Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordea,
ITZIAR ALCORTA IDIAQUEZ.